

Exonomastika Batzordea

Azaroaren 21ean **195. araua** argitaratu zen: «**Artelanen izenak. Musika**».

Munduko artelanak euskaraz izendatzeko arauetako laugarrena da, artelanen arloko azkena. Haren aurretik, hiru hauek argitaratu dira:

- «Artelanen izenak. Historiaurreko eta Antzinaroko artelanen izenak» (191. araua, 2019an).
- «Artelanen izenak. Arkitektura» (193. araua, 2021ean).
- «Artelanen izenak. Pintura, argazkigintza eta eskultura» (194. araua, 2021ean).

195. arauaren lehen partean, musikako era guztietako konposizioen izenak idazteko irizpideak zehaztu dira: zer idazten den letra larriz eta zer ez, noiz erabili behar den letra etzana eta noiz komatxoak, noiz itzultzen diren musika-lan klasikoen izenburuak eta noiz erabiltzen den jatorrizko izena; musika-generoak (fuga, suitea, kontzertua, sonata...), tonalitatea (mi minor, re maior...), *opus*-zenbakia...

Horretaz gainera, operak, balletak eta zarzuelak euskaraz izendatzean zer hartu behar den kontuan ere landu da, nazioarteko joerak kontuan izanik, adibide ugari azalduta.

Arauaren bigarren partean, musikako 75 artelan ezagun zerrendatu dira (euskarazko izena, jatorrizko izena eta egilearen izena zehaztuz):

- 1) Balletak: Beltxargen aintzira, Intxaurhauskailua...
- 2) Operak: Figaroren ezteiak, Cavalleria rusticana, Bizarrurdinen gaztelua, Nabucco...
- 3) Musika klasikoaren obrak: Vivaldiren **Lau urtaroak**; Dvořáken **Mundu Berriko sinfonia**; Bachen **Kontzertu italiarra** (BWV971); Haydnen **Sinfonia kontzertantea** (si bemol maiorrean...).

Euskarazko izendapenez gainera, jatorrizko izena, gaztelaniazkoa, frantsesezkoa eta ingelesezkoa ere eman dira.